

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Jende gehiago gure larrialdietako erlojua erostera konektatzeko, gure bezeroekin konektatzeko plan bat pentsatu nahi dugu, etengabe. Argi utzi nahi dugu nor garen eta nola erakarri nahi ditugun gure bezeroak eta haiek guran konfiantza izan dezaten.

Gure ideia zerbitzu bat eskaintzea da, gure produktua erabiltzen duten pertsonentzako. Ahal dugun moduan lagunduko dieugu haien behar guztiak asetzen direla ziurtatzeko. Aldi berean, gure aplikazioa landuko dugu, eta erantzun automatikoak ere gehituko ditugu, erlojua errazago erabiltzeko eta zure zalantzak azkarrago konpontzeko

Hauek izango dira jendea gurekin mantentzeko erabiliko ditugun estrategiak:

- Etengabe harremanetan jarriko gara bezeroekin pozik daudela eta eskaintzen dugun guztiari buruzko azken berrien berri emateko.
- Aplikazioak atal bat izango du gehituta, non jendeak produktuari buruz haien iritzia partekatzeko. Gainera, aholkuak eta behar duten guztia partekatzeko aukera izango dute. Horrek ondo sentitzeaz gain, eskaintzen duguna hobetzeko funtsezko datuak ere emango dizkigu.
- Eskaintzak eta gauza gehigarriak ere izango dira. Egingo duguna gure produktu nagusiarekin zerikusia duten zerbitzuak aurkeztea da. Goiko gauzetarako harpidetzak izan daitezke, erosketaren ostean egindako hobekuntzak edota gureekin ondo doazen gauzetan deskontuak.

Bezeroak gure negoziara ekartzeari dagokionez, honako hauek ditugu kontuan:

- Harpidetzak eta prezio aniztasuna: guztientzako aukerak izango ditugu, bakoitzak behar duenari egokitzen zaizkion maila ezberdinekin.

- Etengabeko hobekuntzak: jendea produktua hobetzeko ideiarene parte izatea nahi dugu. Zure iritziak asko zenbatuko dira eta, ahal bada, erlojuaren eguneraketetan sartuko ditugu.

Gure ideia hasieratik osasun arazoak dituzten pertsoneri laguntzea izan zen, osasun ona baldin baduzu, ez duzu ezer gehiago beharko. bitza honetan. Bezeroak erakartzeaz gain, harreman ona eta luzea mantendu nahi dugu, eta hori lortzeko, guri ongi egiten ez ezik, gure komunitate osoari ere ondo egiten digun zerbitzu hau eskaintzen dugu. Hauek dira gure estrategiak, gure negozioak arrakasta izateko.